BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2551

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 22koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak 2019ko ekitaldirako arautzen eta iragartzen dituena.

Sailaren turismo-arloko jarduera bideratzen duten lan-ildo estrategikoak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2017-2020 Plan Estrategikoan garatu ziren eta Euskal Turismoaren 2030eko Estrategiaren eta 2017-2020 Plan Zuzentzailearen inspirazio-iturri izan dira. Hona lan-ildo estrategiko horiek:

1.– Turismo-eskaintza bikain bat garatzea.

2.– Turistak erakarri eta fidelizatzea.

3.– Tokiko komunitatearentzako balioa sortzea.

4.– Turismo iraunkorreko praktikak bultzatzea.

5.– Prestakuntzako eta lehiakortasuneko baldintzak hobetzea.

6.– Lurraldeko turismo-kudeaketaren eredua hobetzea.

7.– Kudeaketa- eta gobernantza-eredu berri bat sustatzea.

«Turismoaren hazkunde sendoa, enplegu gehiago eta hobeekin» helburuak bat egiten du sailaren turismo-arloak aldi hartarako duen ikuskerarekin:

«Jomuga bikain eta espezializatu baten garapena sustatzea, balio handia ekarriko diena turistei eta goraldi iraunkorra emango diena euskal gizarteari, enpresariei, kolaboratzaileei eta ingurumenari», eta baita euskal turismo-industriaren 2030eko ikuskerarekin ere:

«Modu iraunkorrean haztea jomuga bikain eta espezializatu gisa sendotzeko, Europan erreferente izateko».

Turismo iraunkor bat lortu nahi da, elkarrekin lotuta dauden lau zutabe dituena. Lau zutabe horiek beharrezkoak dira bisitarien esperientzia turistikoa gizarteak turismoaz duen ikuskera hobetzeko. Hauek dira zutabeak: iraunkortasun ekonomikoa, tokiko komunitatea, ingurune naturala eta kulturala, eta bidaiariak. Jomuga espezializatu bat, ondo egiten dakien gauzetara zuzenduta dagoena eta gainerako jomugetatik bereizten duena. Eta, azkenik, bikaintasunezko jomuga bat, segmentu turistikoen nahasketa bat erakartzea ezaugarritzat duena, non erantsitako balio handiko segmentu turistikoak nabarmentzen baitira: eguneko gastua handiagoa, egonaldi luzeagoa, ingurunearekin jokaera zorrotzagoak eta errespetutsuagoak.

Ikuskera lortzeko, Euskadik emaitza hauek lortu beharko ditu:

– Hazkunde hobea (gastu eta egonaldi gehiago, dibertsifikazio eta deszentralizazio handiagoa).

– Produktibitate gehiago (kostu operatibo gutxiago eta urtarokotasun gutxiago).

– Turismo iraunkorra.

Programa honetan diruz lagundutako jarduerak lehenago aipatutako lan-ildo estrategiko hauetara mugatzen dira:

1. ildoa.– Turismo-eskaintza bikain bat garatzea: Euskadik eskaintza erakarri eta errefortzu motibatzaile gisa jokatu dezaketen produktuen eta esperientzien garapena sustatu behar du. Munduko turismoak esperientzia berriak bilatzeko joera gero eta handiagoa du. Hori motibazio handia da, eta haren gainean abantaila lehiakor bat eraiki daiteke. Turismo-produktu berezien eta esperientzien eskaintza ona izateak, ondare natural, historiko eta kulturalean oinarrituak, lagunduko du bisitarien batez besteko gastua handitzen, eskaintza urte guztian zehar banatzen eta turismo-fluxuak lurraldean zehar birbanatzen. Zerbitzuen kalitatea hobetzeko jardunbide egokien programak abiaraztea errefortzu positiboa da, esperientzia paregabea izan dadin. Gainera, jomugen bereizketan positiboki eragiteko aukera ere ematen du.

2. ildoa.– Turistak erakarri eta fidelizatzea: helburu estrategikoak lortzeko, EAEko Marketin Plana 2017-2020an lehentasunezkotzat hartutako eskaintza-segmentuetara jo beharko du Euskadik; segmentu horiek produktu-motaren arabera sailkatuta daude (produktu enogastronomikoa, ihesaldiak, ibilaldiak, interes bereziko turismoa, kostaldeko atsedenaldia, bilerak, natura, kultura, turismo erlijiosoa eta kirol-turismoa), bezero-motari eta bidaiaren motibazioari (enogastronomia, ibilaldiak, city break-ak, kultura eta ekitaldiak, natura eta abentura, eguzkia eta hondartza, eta landa-turismoa) egokituta daude, bai eta plan horretan lehentasunezkotzat hartutako merkatuei ere (nazioartean: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, AEB, Herrialde Nordikoak eta Herbehereak; Estatuan: Madril, Katalunia, Euskadi, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa).

4. ildoa.– Turismo jasangarriko praktikak sustatzea. Jasangarritasunaren esparruan, Euskadik turismo arduratsuagoa sustatu beharko du bisitarien artean, turismo arduratsuagoa enpresen aldetik, eta ingurumen-jasangarritasuna hobetuko duen turismoa ere bai. Hainbat ekintzaren artean, enpresen eta turismo-helmugen artean Europako ekoetiketaren ziurtagiriarekin, irisgarritasunarekiko konpromisoarekin eta kode etikoarekin zerikusia duten programak abian jartzea, lagungarria izango da balioa sortuko duen hazkunde-eredu bat garatzeko; balioa, ez soilik turistentzat, baizik eta natura- eta kultur-ingurunearentzat, herritarrentzat eta enpresentzat ere bai.

6.– ildoa. Lurraldeko turismo-kudeaketa hobetzea: lurralde-oreka errespetatzen duen turismo-kudeaketaren eredu baterantz jo behar da. Kontzentrazio handieneko jomugak arindu behar dira. Eskaintza urte guztian banatu behar da. Turismo-boterea duten jomugetatik urrun dauden beste jomuga batzuetara doazen turismo-fluxuak indartu behar dira. Eta hori guztia ekimen publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzatik eta koordinaziotik, eskualde bakoitzean eta eskualdeen artean.

Aurretik esandako guztiagatik, laguntza-programa honen helburu nagusia Euskadiko turismo-esperientzia bikaina garatzea eta jomugen lehiakortasuna hobetzea da, turismo-fluxu berriak sortuz eta dinamizatuz. Hauek dira helburu espezifikoak:

1.– Produktu eta esperientzia turistikoen kopurua handitzea.

2.– Programen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko jardunbide egokien programen jomugetan parte hartzen duten enpresen kopurua handitzea (programa horiek Basquetourrek bultzatzen eta kudeatzen ditu).

Laguntza programa honek behar besteko aurrekontu kreditua du Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019. urteko aurrekontu orokorretan, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuaren 2019ko martxoaren 26ko Aginduan jasota dago (haren bidez Turismo, Merkataritza eta Turismoko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu da).

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Arau honen xedea da: Euskadiko helmugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten proiektu turistikoak garatzeko 2019ko ekitaldiko laguntza programaren oinarri arautzaileak ezartzea, turismo-fluxu berriak dinamizatuz, banatuz eta sortuz.

2. artikulua.– Terminoak eta definizioak.

Agindu honi begira, honako definizio hauek finkatu dira:

1.– Turismo-produktua: produktutzat hartuko dira baliabide eta zerbitzu nagusi edo osagarri guztiak, turismo-jardueretan erabiltzeko eta gozatzeko direnak, baldin eta erabiltzaileek jarduera bat edo batzuk egin baditzakete beraietan.

2.– Eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeak (aurrerantzean, turismo-lankidetzako erakundeak): beren konstituzioan edo kudeaketan turismo-sektorearekin lotutako erakunde publiko eta pribatuak barne hartzen dituzten erakundeak dira, eta elementu giltzarria dira helmugako garapen turistikorako.

Eragile hauen helburua da modu koordinatuan eta parte-hartzearen bidez eskualdea helmuga turistiko lehiakor bihurtzeko erronka beren gain hartzea, horretarako mahai instituzionalak, turismoko mahaiak eta, dagokionean, mahai azpisektorialak erabiliz. Ondorioz, turismo-lankidetzako erakunde bakarra egon daiteke eskualde bakoitzeko.

3.– Hiriburuetan turismoa sustatzeko erakundeak: Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan turismoa sustatzeko ardura duten erakunde publikoak.

4.– Turismo-produktuak kudeatzen dituzten eskualdeaz gaindiko erakundeak (aurrerantzean, turismo-produktuak kudeatzen dituzten erakundeak): eskualdeaz gaindiko erakundeak dira, eta zehazki sortu ziren, hain zuzen ere, baliabide gastronomiko natural edo kultural bat, erakartzeko eta turismo-fluxuak sortzeko ahalmen handia duena, turismo-produktu gisa abiarazi, kudeatu, sustatu eta merkaturatzeko.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Turismo-proiektuen garapenerako laguntzak emateko diru-baliabideen zenbatekoa 1.360.000 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetan ezarritakoak izango dira.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatu hauek izango dira onuradunak:

1.1.– Erakunde publikoak (udalak, toki-erakunde autonomoak, tokiko enpresa-erakunde publikoak eta titulartasun publikoko merkataritza-sozietateak), baldin eta hiriburuen sustapen turistikoaren ardura badute, bai eta eskualdeko turismo-lankidetzako erakundeetako kide ez diren udalerriak ere, baldin eta horiek ez badira existitzen edo ez badira eratu beren esparru geografikoan, betiere toki-erakunde horiek turismo-bulegoen edo informazio-puntu turistikoen titularrak badira, horiek Itourbask Euskadiko Turismo Bulegoen sarekoak badira eta urte guztian irekita badaude.

1.2.– Erakunde publikoak edo pribatuak (kuadrillak eta mankomunitateak, garapen-agentziak, landa-garapeneko elkarteak, partzuergoak, entitate publiko eta pribatuek eratutako merkataritza sozietateak, eta bestelako erakunde eta elkarteak), baldin eta eskualde-mailan nahiz eskualdez gaindikoan lankidetza turistikorako erakunde edo turismo-produktuak kudeatzen dituzten erakunde gisa jarduten badute.

2.– Erakunde hauek ezingo dira laguntzaren onuradun izan:

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ondorio horietarako jasotako kasuren batean daudenak.

– Horretarako ezgaitzen dituen legezko debekua duten erakundeak, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoari jarraikiz.

5. artikulua.– Erakunde baztertuak.

Ezin daitezke laguntza-programa honetako onuradun izan enpresa-taldeak, enpresa-elkarteak, kirol-erakundeak eta Eusko Jaurlaritzaren edo foru-aldundien mendeko edo horiekin lotutako sozietate publikoak, nortasun juridikoa dutenak.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu daitezke proiektu-tipologia hauek garatzeko 2019ko ekitaldian egiten diren jarduerak:

a) Jomugen erakargarritasuna eta Euskadiko turismo-esperientzia hobetzen duten turismoko lurralde-proiektuak; haien ezaugarriak, betebeharrak eta baldintzak I. eranskinean zehaztuta daude.

b) Jomugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak; haien ezaugarriak, betebeharrak eta baldintzak II. eranskinean zehaztuta daude.

2.– Onartuko dira 2018ko ekitaldian egindako gastu-aurrerakinak, 2019an egiteko diren jardueretarako badira, haiek kontratatzeko baldintzek hala eskatzen dutenean (ferietarako lekuak erreserbatzea, nazio mailako edo nazioarte mailako sareen kide izateko kuotak).

3.– Dirulaguntzaren xede diren jarduera guztiak azpikontratatu ahal izango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzen Legearen Erregelamenduaren 68. artikuluan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) ezarritako baldintzetan.

7. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Emandako laguntzak dirulaguntza itzulezinak izango dira.

2.– Programa honetara zuzendutako gehieneko zenbateko globala erakunde onuradunen artean hainbanatuko da, baldin eta aurreikusitako zuzkidura ez bada iristen I. eta II. eranskinetan eta 8. artikuluan ezarritako baldintzak (dagozkien zenbatekoetan) betetzen dituzten erakundeentzat.

8. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Diruz lagundutako jarduera-tipologia bakoitzarentzako laguntzen zenbatekoak I. eta II. eranskinetan daude jasota.

2.– Erakunde batek gehienez ere 66.500 euro jaso ahal izango ditu, kontuan hartuta langileak zuzenean edo lurralde-proiektu turistikoen kudeaketarako (I eranskina, 2.1 artikulua) laguntza tekniko bidez kontratatzeko edo jomugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko programaren enpresa eta erakundeak laguntzeko(II. eranskina) laguntzen batura gehienez ere 35.000,00 eurokoa izango dela.

3.– Oro har esanda, diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluaren arabera, diruz lagundutako jardueraren izaerari inongo zalantzarik gabe erantzuten diotenak, baldin eta behar-beharrezkoak badira eta agindu honetan zehaztutako epean egiten badira. Gastu horiek I. eta II. eranskinetan zehazten dira.

Zeharkako zergak sartu ahal izango dira, non eta zerga horiek ezin diren berreskuratu edo konpentsatu.

4.– Erakunde onuradunek kontratu txikiak egiten badituzte, ekipamenduen horniduraren edo aholkularitza edo laguntza teknikoaren zerbitzuak ematearen kasuan, eta diruz lagundu daitekeen zenbatekoa 15.000 eurotik gorakoa bada, erakunde onuradunak, gutxienez, eskaintza bana eskatu beharko die hiru hornitzaileri, zerbitzua kontratatzeko edo ondasuna emateko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta dituen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan horiek egiteko, eskaintzeko edo hornitzeko behar beste erakunde ez badaude, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artean egindako hautua (justifikazioan aurkeztu beharko dira) efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin bat etorriz egin beharko da, eta, betiere, berariaz justifikatu beharko da memoria batean, baldin eta proposamen ekonomiko onenaren alde egiten ez bada.

5.– Dirulaguntza onartu ondoren erakundeari ematen zaizkion funtsen % 70i dagozkion benetako finantza-etekinak dirulaguntzaren zenbatekoari gehituko zaizkio, eta diruz lagundutako jarduerari aplikatuko zaizkio. Horren ondorioz, finantza-etekinen eta emandako dirulaguntzaren baturak jardueraren kostua gainditzen badu, soberakina itzultzeko eskatu ahal izango da. Atal hau ez da aplikatuko onuraduna administrazio publiko bat denean.

9. artikulua.– Beste laguntza batzuekin bateragarri izatea.

1.– Agindu honen bidez araututako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde edo organismo batzuek emandako beste edozein laguntzarekin, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak xede berberarekin kudeatutako hitzarmenen edo beste laguntza-agindu batzuen bidez ematen diren laguntzekin izan ezik.

2.– Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, arau honen babespean emandako zenbatekoak, bere horretan edo beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste dirulaguntza batzuekin batera, eta jarduera edo inbertsio berberetarako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderekin batera, ez du gainditukо laguntza emateko arrazoia den jardueraren kostua. Horrelako kasuetan, mugaren gainetik geratzen den zenbatekoa kenduko zaio agindu honen bidez emandako laguntzari.

10. artikulua.– Erakunde laguntzaileak.

Agindu honetan jasotako arauketarekin bat ematen diren laguntzetarako, Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de Turismo SA honako zeregin hauek bere gain hartuko dituen erakunde laguntzaile izendatzen da:

1.– Eskabideak aurkezteko fasean, informazioa ematea Basquetourrek bultzatutako eta kudeatutako programen jomugetan programak ezarriko dituzten erakundeei buruz, eta jakinaraztea horietan izena eman duten enpresen kopurua.

2.– Laguntza justifikatzeko fasean, aipatutako programa horien gauzatzeari buruzko informazioa ematea.

11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Erakundeek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dituzte eskabideak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren egoitza elektronikoan (euskadi.eus), helbide hauen bitartez:

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/ptt-2019/y22-izapide/es (gaztelania).

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2019/ptt-2019/y22-izapide/eu (euskara).

3.– Eskabideak, erantzukizun-aitorpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak egiteko jarraibideak aipatutako egoitza elektronikoan daude eskuragarri; hala ere, horien edukia IV. eranskinean dago.

4.– Eskaera egin ondorengo izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egingo dira, https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/ helbidean.

5.– Erakunde eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Era berean, eskaeratik eratorritako jardueretan, eta prozedura guztian zehar, pertsona edo erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoa betez.

6.– Erakunde eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du, eta bertan jasoko dira 6. artikuluan zerrendatutako diruz lagundu daitezkeen jarduera guztiak. Erakunde batek eskabide bat baino gehiago aurkeztuko balitu, horietako batean atzera egiteko eskatuko zaio eta, egingo ez balu, erregistratutako lehen eskabidea onartuko da eta gainerako guztiak artxibatu egingo dira.

7.– Betetako eskabideak, pertsona edo erakunde eskatzailearen sinadura ezagunaz gain, datorren artikuluak aipatzen duen dokumentazioa gaineratuko du, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera. Sinadura elektronikoaren aurkezpena aurkezteko epetzat hartuko da.

8.– Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, haren izenean bide elektronikoz jardun dezan agindu honi dagozkion prozedura guztietan, dela Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan dagoen Ordezkarien Erregistro Elektronikoaren bitartez (https://euskadi.eus/y22-izapide2/es/contenidos/informacion/egoitza_ordezkarien_erregistro/es_egoitza/egoitza_representantes.html), dela eskabideari lege-ordezkaritza emateko inprimaki arautua, behar bezala betea, erantsiz. Azken hori hemen dago eskuragarri: (http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/).

Ordezkariak (fisikoa nahiz juridikoa izan) identifikatzeko bitarteko elektroniko onartu bat eduki beharko du.

9.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

12. artikulua.– Eskabidearen eta aurkeztu beharreko beste dokumentazioaren edukia.

1.– Eskabidean erakundearen datu orokorrak idatzi beharko dira. Langileen datuak sexuaren arabera bereizita jaso behar dira. Proiektuak aztertzeko eta laguntzak kalkulatzeko behar den informazioa ere eman behar da. Gainera, eskabide horretan jasota dagoen informazioaren egiazkotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpena ere jasoko du. Aipatutako informazioa honako hau da:

– Laguntza jaso duen pertsonaren edo erakundearen izaerari dagokionez:

● Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren gainerako egoeretan (egoera horiek eragotzi egiten dute pertsona edo erakunde onuradun izatea).

– Zigorrei dagokienez:

● Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik eta ez daukala horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

● Erakundearen kontra dirua itzultzeko edo zehatzeko prozedurarik dagoen edo ez, Administrazio Orokorrak edo Euskal Autonomia Erkidegoak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.

– Beste laguntza batzuei dagokienez:

● Proiektu bererako beste erakunde publiko edo pribatuei eskatutako edo haiengandik jasotako laguntzak.

● Agindu honetan ezarritako zenbatekoak, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste dirulaguntzak batuta, dirulaguntza emateko xede den jardueraren azken kostua gainditzen badu, eskatzaileak konpromisoa hartzen duela egoera horren berri emateko.

– Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

● Ez dagoela zigortuta dirulaguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluaren arabera.

● Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela.

● Konpromisoa hartzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/ 2005 Legearen 2.3 artikuluak administrazioarekin laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo handik laguntzak jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko. Hauek dira betebehar horiek: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioak betez jardutea; estatistika eta azterketak egokitzea; edozein motatako hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea euskarri guztietan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua edukitzea.

– Eskabideko datuei dagokienez:

● Erakundearen organo eskudunak erabaki duela jarduerak laguntza-programa honen deialdira aurkezten diren bezala onestea eta finantzaketa-konpromisoa onartzea diruz lagundu ezin daitekeen zatiarentzat.

● Betetzen dituela deialdia arautzen duten oinarrietan ezarritako betekizunak.

● Egiazkoak direla eskabideko datu guztiak eta aurkeztutako dokumentazioa, eta norbere gain hartzen dela dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, deklaratzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

2.– Eskabideekin batera, gainera, ondoren zehazten den dokumentazio digitalizatua aurkeztu beharko da:

● Ekintza-plan bat turismo-produktu bakoitzeko, non honako puntu hauek jasoko baitira: ekintza-planaren testuingurua, helburuak, deskribapena eta aurrekontu banakatua, laguntzaren helburu izango diren jarduerena, plana garatzeko behar diren baliabideak, kronograma eta ebaluazio-adierazleak.

● Dirulaguntzaren xede den proiektuaren tipologia ez badator bat turismo arloko sailburuordetza eskudunak Basquetourren bidez garatzen dituenekin, erakunde eskatzaileak horretarako egindako produktuaren plana aurkeztu beharko da, eta horrek agindu honen I. eranskinaren 3. apartatuan jasotako gutxieneko edukiak izan beharko ditu.

● Lankidetza turistikorako erakundeak: akten kopia, dirulaguntzaren eskabidean aurkezten diren proiektuei buruz hartu diren erabakiak jasotzen dituzten turismoko mahaietakoa.

● Turismo-produktuak kudeatzen dituzten erakundeak: akten kopia, laguntza-eskabidean aurkeztutako proiektuei buruz hartu diren erabakiak jasotzen dituena.

3.– Hirugarrenei ordezkaritza eman nahi izanez gero, beren izenean modu elektronikoan espediente zehatz baterako jardun dezaten, eta Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan dagoen Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili gabe, «borondatezko lege-ordezkaritza emateko inprimaki arautua» delakoa behar bezala bete behar da (http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/), eta gero, harekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu:

– Ordezkaritza-ahalordea edo zuzenbidean balio duen beste edozein agiri, baldin eta hirugarren pertsona bati ordezkaritza ematen dion erakundearen legezko ordezkari aritzeko zilegitasuna ematen badio.

4.– Ez da nahitaezkoa izango edozein administraziok egindako dokumentuak aurkeztea, betiere erakunde interesdunak horiek kontsultatzeko baimena espresuki ukatu ez badu eskabidean. Era berean, ez da nahitaezkoa izango erakunde interesdunek aurretik edozein administraziotan aurkeztu dituzten datu edo dokumentuak aurkeztea, betiere noiz eta zer organotan aurkeztu zituzten adierazten badute. Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ofizioz bilduko ditu datu edo dokumentu horiek, erakunde eskatzaileak espresuki horretarako baimena ukatzen ez badu. Materialki ezinezkoa bada agiria zuzenean eskuratzea, organo kudeatzaileak agiri hori aurkezteko eskatu ahal izango dio erakunde eskatzaileari, edo, aurkeztu ezin badu, agirian aipatzen diren eskakizunak beste modu batez egiazta ditzala.

5.– Eskaera aurkezteak berekin dakar eskatzaileak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari baimena ematea hark, ziurtagiri telematikoen bidez, zuzenean egiaztatzeko eskatzaileak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga-betebeharrak. Hala eta guztiz ere, erakunde eskatzaileak espresuki uka dezake baimen hori, eta, hala egiten badu, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan xedatutako moduan aurkeztu beharko du egiaztapena.

Baldintza horiek bete direla egiaztatuko da laguntza eman baino lehen eta laguntza horren ordainketak egin baino lehen.

6.– Era berean, ez da beharrezkoa izango aurkeztea Basquetourrek eman dezakeen dokumentazioa, hots, erakunde horrek garatutako jardunbide egokien programak gainditu dituzten erakundeen zerrenda.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabideen zuzenketa.

1.– Eskabidea guztiz bete ez bada, edo aurreko artikuluan aipatutako nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkeztu ez bada, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko lurralde bulegoetako teknikariek entitate eskatzaileari 10 eguneko epea emango diote akatsa zuzentzeko edo beharreko dokumentuak bidaltzeko; era berean, hori egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela adieraziko dio. Epe hori igarota, zuzenketak egin ez badira, dagokion ebazpena emango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoaren arabera.

2.– Jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira, dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez, https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/ helbidean.

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko zein egun eta ordutan eskaini zaion jakinarazpena jakinarazten den ekintzaren interesdunari, eta zeinetan sartu den hura haren edukira; une horretatik aurrera jakinarazpena gauzatutzat joko da. Jakinarazpena interesdunaren eskura jarri izanaren ziurtasuna egonik egutegiko hamar egun igarotzen badira interesduna haren edukira sartu gabe, jakinarazpenari uko egin diola ulertuko da eta izapidea prozedurari jarraituz egintzat emango, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela jakinarazpenera sartzea.

14. artikulua.– Eskabideen analisia eta ebaluazioa.

1.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko lurralde bulegoetako teknikariek epe barruan aurkeztutako eskabideen analisia egingo dute, eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko. Eskabide guztiak behar bezala ulertu eta ebaluatzeko, behar adina agiri edo informazio eskatu ahal izango diete erakunde eskatzaileari eta Basquetourri.

2.– Analisi horren emaitza txosten batean jasoko da eskabide bakoitzeko. Txosten horretan zehaztuko da zein gastu izan diren hautatuak eta zein ez. Hautatuak izan ez diren gastuak arrazoitu egin behar dira, bai eta agindu honen 8. artikuluan eta I. eta II. eranskinetan adierazitako mugen arabera eman beharreko dirulaguntzaren (dirulaguntza teorikoa) ehunekoak eta gehieneko zenbatekoak ere.

3.– Gero, egindako txostenak eta programarako zuzkidura ekonomikoa ikusirik, turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen zuzendaritzako antolaketa-arduradunak edo, halakorik ez badago, sustapen-arduradunak ebazpen-proposamen bat bidaliko dio zuzendaritza horretako titularrari.

4.– Programarako zuzkidura ekonomikoa analisiaren ondoriozko ehunekoetan eta gehieneko zenbatekoetan aurreikusitako eskaerei erantzuteko behar bestekoak ez badira, zenbatekoak murriztu egingo dira, hainbanatuta, defizita arindu arte.

15. artikulua.– Laguntzak ematea.

1.– Turismo eta ostalaritza arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari dagokio erakundeek eskatutako laguntzak eman edo ukatzeko administrazio-ebazpena eman eta jakinarazteko; sei hileko epea dute horretarako, urteko deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ebazpen horretan identifikatuko dira erakunde onuradunak, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak edo, hala badagokio, laguntza ez emateko arrazoiak.

2.– Ebazpen horren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako titularrari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritakoari jarraikiz. Gora jotzeko errekurtsoa «Nire karpeta» aplikazioaren bitartez bakarrik izapidetuko da: https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/ egoitza elektronikoan.

3.– Epe hori igarotzen bada ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, erakunde interesdunak bere eskaera ezetsi dela ulertu ahal izango du; hala ere, organo eskudunak ebazpena espresuki eman beharra dauka.

4.– Laguntzak emateko ebazpena erakunde interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio banan-banan bitarteko elektronikoen bidez. Horretaz gain, erakunde esleipendunen eta emandako laguntzen zerrenda argitaratu ahal izango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

5.– Arau honen bidez araututako dirulaguntzak erakunde onuradunei emateko –eta, dagokionean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaituta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak. Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaikuntza badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun-izaera eskuratzeko debekua izateagatik.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren ordainketa.

1.– Dirulaguntzaren ordainketa turismo eta ostalaritza arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak aginduko du, eta bi epetan ordainduko da, honela: dirulaguntzaren % 70 emandako laguntza onartu ondoren edo, dagokionean, agindu honen 17.1 artikuluan zehaztutako epea dirulaguntzari espresuki uko egin gabe igarotzen denean; eta gainerako % 30a egindako gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurrerakina ordaintzeko laguntza onartu arren, badago errekurtsoa aurkeztea laguntza onartzen duen ebazpenaren aurka.

2.– Dirulaguntza kobratzeko, eta pertsona edo erakunde onuradunaren bankuko edo izen sozialeko datuak aurretik eman ez badira edo aldatu nahi izanez gero, hirugarrenen alta hartzeko datuak jakinarazi beharko dira, Ogasun eta Ekonomia Sailak ezarritako ereduaren eta prozeduraren arabera (http://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-s2oga/eu/).

«Hirugarrenaren alta» dokumentua «Hirugarrenaren altaren erregistroa» delakoaren bidez betetzen ez bada, inprimakiarekin batera, identifikazio fiskaleko txartela aurkeztu beharko da.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek:

1.– Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, dirulaguntzaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunak ukoa idatziz eta espresuki adierazten ez badu, dirulaguntza onartu egiten duela ulertuko da.

2.– Emandako dirulaguntza horren xede den helbururako erabiltzea, 19. artikuluan ezarritakoa aplikatzekoa denean izan ezik. Horrez gain, laguntzaren xede diren helburuak eta jarduerak bete dituztela justifikatu beharko dute, agindu honetan eta laguntza emateko ebazpenean xedatutakoari jarraikiz.

3.– Beste edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik xede berbererako dirulaguntzak edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortuz gero, horren berri ematea dirulaguntza ematen duen organoari. Komunikazio hori jakin bezain laster egin behar da eta, edozein kasutan, dirulaguntza justifikatzeko agiriekin batera egin beharko da.

4.– Dirulaguntza emateko edozein inguruabar objektibo edo subjektibo aldatzen bada, aldaketa egin aurretik horren berri ematea.

5.– Laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko dituzten zereginak aurrera eramanez eskatzen dion informazio oro ematea, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

6.– Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten agiriak eta fakturak, agiri elektronikoan barne, gutxienez bost urtez gordetzea, diruz lagundutako jardueraren azken justifikazioa egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak agiri eta faktura horiek egiaztatu edo kontrolatzeko beharra izan dezake.

7.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lankidetza espresuki aipatzea modurik egokienean, diruz lagundutako proiektuaren ezaugarrien arabera eta irizpide hauek betez:

– Hezkuntza, promozio eta marketinerako euskarriek, beren formatua eta hedatzeko modua edozein delarik ere, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren logoa (https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/) eta Euskadi Basque Country marka turistikoa erakutsi beharko dute, horri buruzko eskuliburuetan jasotako aplikazioen arabera, salbu eta bidaia-agentziekin edo turismo-preskriptoreekin egindako promozio-ekintzetan erakunde onuradunaren, jomugaren edo produktuaren klubaren logotipoa erabiltzen ez bada. Eskuliburu horiek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko «Nire Karpeta» aplikazioaren bitartez eskatu ahal izango dira (https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/), dokumentazioa aurkeztea izeneko botoia erabiliz horretarako.

– Gainera, hala badagokio, webgunean turismoaren webgune ofizialaren banner bat jarri beharko da: www.euskaditurismo.eus

8.– Bere gain hartzea Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 2.3 artikuluan administrazioaren laguntzak jasotzen dituzten edo harekin kontratuak edo hitzarmenak egiten dituzten erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak. Tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren

printzipioak betez jardutea; estatistika eta azterketak egokitzea; edozein motatako hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea euskarri guztietan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua edukitzea.

9.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko zerbitzu teknikoek egin beharrekotzat jotzen dituzten ikuskaritzei eta egiaztapenei men egitea. Diruz lagundutako jardueren garapen eta betearazpenarekin zerikusia izan dezakete ikuskaritzek eta egiaztapenek, eta erakunde onuradunek eman egin beharko dute horien inguruan eskatzen zaien informazio guztia, baita eskatzen zaien justifikazio-dokumentazio guztia ere.

18. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta azken likidazioa.

1.– Justifikaziora sartzeko eta hori betetzeko, modu bakarra egongo da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko (https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/) «Nire karpeta» aplikazioa erabiltzea.

2.– Erakunde onuradunak agiriak aurkeztuz frogatu beharko du, baliabide elektronikoen bidez, bete egin dituela ezarritako baldintzak, eta lortu egin duela laguntza ematean ezarritako helburua. Eskabideak aurkezteko azken eguna 2020ko urtarrilaren 31 izango da.

3.– Ezarritako justifikazio-epea bukatu eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, luzatu ezin den hamabost eguneko epean aurkezteko eskatuko diote Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko lurralde bulegoetako teknikariek erakunde onuradunari. Ezarritako epean justifikaziorik aurkeztu ezean, baldintza hori bete gabe geratuko da eta, ondorioz, ordaindutako dirulaguntza itzuli egin beharko da, gehi berandutze-interesa.

4.– 2. apartatuan zehazten den justifikazio-aldia bukatu aurretik egiaz ordaindutakoa joko da egindako gastutzat.

5.– Dirulaguntzak justifikazio-kontuaren bidez justifikatuko dira, gastu-egiaztagiriak aurkeztuz, non gutxienez dokumentazio hau bilduko baita:

– Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete dituztela justifikatzeko jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehatz-mehatz azalduta.

– Justifikazio-memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua frogatzen duena, honako puntu hauek jasotzen dituena:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, enpresa hornitzailearen identifikazioarekin (IFZ eta enpresaren izen soziala), faktura emandako data, kontzeptua eta zenbatekoa (BEZa barne, diruz lagundu badaiteke) eta ordainketa-eguna. Laguntza aurrekontu baten arabera eman bada, gertatutako desbideratzeen berri eman beharko da. Fakturen koadroa egoitza elektronikoan garatu eta emandako ereduaren arabera beteko da: https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/

b) Jatorrizko fakturak (elektronikoak izan daitezkeenak) edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten dokumentuak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, bat etorri beharko baitute aurreko apartatuan zehaztutakoekin. Bidaia-gastu txikiak justifikatzeko (bidesariak, kilometrajea, hiriko garraioa eta mantenu-gastuak), ordainagirien ordez, posible izango da kontzeptu horregatik egindako gastuen egiaztagiri bat aurkeztea, arduradunaren edo baimendutako pertsonaren sinadurarekin (udal-ikuskatzailea, erakundearen kudeaketa ekonomikoaren arduraduna, etab.), betiere zenbateko hori emandako dirulaguntzaren % 10 baino txikiagoa bada. Diruz lagundutako gastuen kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gainditukо.

c) Ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuei buruzko erantzunkizunpeko adierazpena, zenbatekoa eta jatorria ere aipatzen dituena; adieraziko da, halaber, oinarrietan eta ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen dituela, jarduerak egin dituela eta proiektu horren emaitzak lortu dituela jardueraren azken memoriaren eta justifikazio-kontuaren bidez hala justifikatzen baitu, eta datuak eta aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

e) Lan-kontratua eta dagozkion nominak, pertsona gaituren bat kontratatzeko dirulaguntza jasotzen den kasuetan.

f) Hala badagokio, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 31.3 artikuluari jarraikiz eta agindu honen 8.4 artikuluan ezarrita dagoen moduan, erakunde onuradunak eskatu dituen hiru aurrekontuak.

6.– Gainera, kasu guztietan:

– Promoziorako materiala egiteko dirulaguntza eskatu dutenek aurkeztu beharko dute sortutako material bakoitzaren ale bat edo Interneteko sarbidea, materiala Interneten argitaratu bada.

– Dagokionean, bankuko dokumentu bat, non adierazten baitira dirulaguntzaren % 70eko aurrerakinak ordaindu zenetik dirulaguntzaren justifikazio aurkezteko egunera arte sortu dituen benetako finantza-etekinak.

7.– Turismo eta ostalaritza arloko teknikariek egiaztatuko dute diruz lagundutako jarduerak egin direla, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta.

8.– Dokumentazioa egiaztatzerakoan ikusten bada konpon daitezkeen akatsak daudela erakunde onuradunak aurkeztutako egiaztagirian, jakinaren gainean jarriko dute aipatutako langileek, eta hamar eguneko epea emango diote akatsok zuzentzeko.

9.– Zentzu horretan, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa likidatzeko, dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztutako finantzaketa-ehuneko aplikatuko zaio erakunde onuradunak benetan ordaindu eta justifikatu dituen gastuei, kontuan izanik agindu honen I. eta II. eranskinetan eta 8. artikuluan ezarritako gehieneko zenbatekoak. Era berean, diruz lagundutako jarduketak finantzatzeko beste entitate batzuek emandako laguntzak kontuan hartuko dira, bai eta, hala badagokio, laguntzaren aurrerakinaren finantza-etekinak ere. Dirulaguntzaren azken zenbatekoa inola ere ez da izango dirulaguntza emateko ebazpenean agertzen dena baino handiagoa. I. eranskinean jasotako jardueren justifikazioen zenbatekoak, dirulaguntzaren ehuneko berekoak badira, elkarrekin konpentsatu ahal izango dira, eta ezin izango dute gainditu eranskin horretako jardueretarako onartutako laguntza.

10.– Nolanahi ere, ez badira dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztutako gastu guztiak onartzen, eta, horrek emandako dirulaguntza murriztea ekartzen badu, Turismo eta Ostalaritza arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari dagokion dirulaguntzaren likidazioa proposatu baino lehen, hamabost eguneko entzunaldi-izapidea emango zaio erakunde interesdunari, hala badagokio, egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

11.– Aipatutako alderdi guztiak egiaztatu dituztenean, izendatutako teknikariek txosten bat emango dute eta turismoaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari igorriko zaio; bertan, justifikatutako eta onartutako gastuaren arabera, dagokion dirulaguntzaren likidazioa proposatuko da.

19. artikulua.– Laguntzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira eta beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuetatik beste dirulaguntza batzuk edo bestelako laguntzak jasotzen badira, edota, hala badagokio, helburu bererako beste diru-sarrera zein baliabide batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin ahal izango da; betiere, ustezko ez-betetzeak estaltzen ez badira, arau honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira eta hirugarrenei kalterik eragiten ez bazaie. Laguntza-programa honen onuradun izateko, gutxieneko baldintza horiek bete behar dira. Baldintzak agindu honen 4. artikuluan daude, eta dirulaguntzak jasotzeko jarduerak, ordea, 6. artikuluan eta I. eta II. eranskinetan. Ondore horietarako, aldatzeko ebazpena emango du turismo eta ostalaritza arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak, eta bertan emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko dira.

2.– Hala eta guztiz ere, aurkeztutako proiektuaren funtsa aldatzen ez bada, dirulaguntzen deialdi honetako gutxieneko eskakizunak betetzen badira eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen zuzendaritzari jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio aldaketak, idatziz, baina dirulaguntza emateko ebazpena ez da aldatuko.

3.– Justifikazio-fasean, jarduerarako onartutako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularraren murrizketa-ebazpen baten bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

20. artikulua.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatzen duen erakundeak atzera egin dezake bere eskaeran. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrak, ebazpen bidez, bete-betean onartuko du atzera egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du.

2.– Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio erakunde onuradunak. Dirulaguntza onartu eta gero egin ahal izango da ukoa. Turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrak, ebazpen bidez, espresuki onartuko du emandako ukoa, eta ordurako ordainketaren bat egin bada, itzuli beharra deklaratuko du, gehi dagozkion interesak, eta amaitutzat emango du prozedura.

21. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Erakunde onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntza emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, edo ez badu betetzen laguntza emateko aintzat hartutako xedea, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluarekin eta abenduaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluarekin bat etorriz, laguntza eman zuen organo eskudunak, ez-betetzearen espedientea izapidetu ondoren (interesdunari entzunda), ebazpen bidez, dirulaguntza osoa edo zati bat jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalean) eta berandutze-interesak, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuarekin eta aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluarekin bat etorriz, hartara eragotzi gabe beste neurri batzuk hartzea. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Segidan aipatzen den gorabeheraren bat gertatzen bada, dirulaguntza osorik kobratzeko eskubidea galduko da:

a) Diruz lagundutako jarduerak emandako laguntzaren % 25ean edo hortik beherako ehunekoan osotasunean egikaritzen badira.

b) Egiaztagiriak epez kanpo aurkeztea, dagokion errekerimendua egin ostean.

c) Laguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak ez betetzea.

3.– Dirulaguntza justifikatzeko agiri batzuk falta badira, dirulaguntza murriztu egingo da, aurkeztu gabeko egiaztagiriekiko zenbateko proportzionalean.

4.– Turismo eta ostalaritza arloko eskumena duen titularrari dagokio ez-betetzearen espedientea hastea eta ebaztea. Ez-betetzearen espediente hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko (https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/) «Nire Karpeta» aplikazioaren bitartez bakarrik izapidetuko da.

5.– Prozedura administrazioko arau-haustea izan daitezkeen egitateen ondorioz hasten bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio, behar den zehapen-prozedurari ekin diezaion.

22. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Turismo arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira. Datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez) ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

1.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

2.– Oinarri hauetan jasota ez dagoen guztirako, honako arau hauek aplikatuko dira: 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru laguntzei buruzkoa; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; eta prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, honen aurka berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 22a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

I. ERANSKINA

TURISMOKO LURRALDE-PROIEKTUAK, JOMUGEN ERAKARGARRITASUNA ETA EUSKADIN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIA HOBETZEN DUTENAK.

1.–Atal honetan oinarrituko dira helburu hauek lortzeko turismo-produktuak sortu, abiarazi, sustatu eta merkaturatzea dakarten proiektuak: EAEko turismo-esperientzia hobetzea; turismo-eskaintza sendotzea eta bereiztea, balio erantsi handiagoa emanez; eta turismo-fluxu berriak indartzea eta sortzea, horrela turismo-kontsumoa urte guztian modu uniformean banatzen laguntzen badute eta turisten batez besteko egonaldia eta gastua handitzen badute. Zeharkakoak izango dira, ahal dela, eta eskualdez gaindiko eragin handiagoa izango dute, eta, horretarako, helmugen arteko lankidetza eta koordinazioa sustatuko da. Ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatuko dute fase guztietan, ea berariaz merkaturatzean; eta konponbide teknologikoak erabiltzeko joera izango dute, helmugaren, turismo-enpresaren eta bisitariaren arteko elkarreragina ahalbidetzeko.

2.– Diruz lagun daitezkeen proiektuak izango dira Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzak sustatutako gidaplanen eta turismo-produktuen arabera- zeinak Basquetour SA erakundeari eskatu ahalko zaizkio- egiten diren jarduerak. Zehazkiago, honako hauek:

2.1.– Turismo gastronomikoa: Turismo enogastronomikoa sustatzeko planaren araberako proiektuak baino ez dira kontuan hartuko, «Euskadi Gastronomika» produktuaren klubaren testuinguruan garatutakoak.

2.2.– Naturarekin lotutako turismoa: honako kategoria hauetan bildutako turismo-produktuei dagozkien proiektuak baino ez dira kontuan hartuko:

2.2.1.– Turismo aktiboa naturan.

– Xendazaletasuna: Euskadiko xendazaletasun plana.

– Zikloturismoa: Euskadiko zikloturismo plana.

2.2 2.– Ekoturismoa: Ekoturismoaren Gidaplanarekin bat datozen proiektuek izango dute lehentasuna.

2.3.– Bilera eta pizgarrien turismoa (MICE): Basquetourrek eginiko MICE turismoaren garapen-planarekin bat datozen hiriburuetako proiektuek izango dute lehentasuna.

2.4.– Kultura-turismoa.

– Euskadiko Done Jakue bideak.

– Euskadiko Ignaziotar Bidea.

2.5.– Kostako turismoa: Euskal Kostaldearen Gidaplaneko eragiketa-planari dagozkion eta ezarritako lan-mahai edo -foroetan onartuz joaten diren ekintza guztiak jasoko dira; hala ere, produktu hauei lotutakoek izango dute lehentasuna: Surfing Euskadi, turismo nautikoa eta marinel-kultura.

2.6.– Familia-turismoa: Familia Turismoaren Planarekin bat datozen proiektuak.

2.7.– Esperientzia-programa: III. eranskinean zerrendatutako esperientzia ofizialei dagozkien ekintza guztiak.

2.8.– Turismo industriala: Turismo Industrialaren Gidaplanarekin bat datozen proiektuek izango dute lehentasuna.

3.– Aurreko atalean identifikatu ez diren planetan ez dauden baina ezarriko diren jomugen turismo-garapenerako estrategikotzat jo daitezkeen beste produktu-mota batzuk (ihesaldiak, ibilaldiak, interes bereziko turismoa, eta abar) sortzeko, garatzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko jardunak sustatuko dira, eta, horrela, produktuaren planean justifikatuko dira. Planak honako atal hauek jaso beharko ditu, behintzat:

– Planaren justifikazioaren diagnostikoa (hala badagokio, eskaintzaren, ahalmenaren eta eskariaren analisia eta AMIA diagnostikoa identifikatzea).

– Planaren helburuen identifikazioa.

– Turismo-produktuaren definizioa eta ezaugarriak.

– Produktuaren marketin-plana (sustapena eta merkaturatzea).

– Garapen-estrategia (aurreikusitako ekintzak, kronograma, markaren irudia –hala badagokio–, etab.).

– Helburuen lorpenaren amaierako ebaluazioa.

4.– Diruz lagundu ahalko dira, zalantzarik gabe, jarraian adierazitako ardatz bakoitzean zehaztutako jarduerak egiteko behar diren gastuak:

1) Plangintza eta kudeaketa:

– Proiektuak gauzatzeko, horien jarraipena egiteko eta dinamizatzeko baliabideak. Diruz lagundu ahalko da prestakuntza egokia duten langileak aldi baterako kontratatzeko gastua –laguntza teknikoaren bidez edo obra edo zerbitzuko kontratuaren edo antzeko bestelako baten bidez–, baldin eta helburua proiektuak kudeatzea, horien jarraipena egitea eta dinamizatzea bada. Onartuko dira, halaber, erakundea estatuko eta nazioarteko sareetako kide izateari dagozkion gastuak, hala nola kuotak, bidaiak eta ekitaldiak.

2) Produktua sortzea:

– Produktua dinamizatzeko tailerrak. Diruz lagundu ahalko dira produktuaren garapenean interesa duten erakundeek parte hartzen duten tailerren garapenari lotuta dauden gastuak, horiek hobetzen edo sortzen eta gauzatzen laguntzeko, besteak beste: aretoak eta materiala alokatzea, tailerrak garatzeko kanpo-enpresak kontratatzea, etab.

– Jardunbide egokien bidez ezagutza eman dezaketen beste helmuga batzuetara azterketak egiteko bidaiak. Diruz lagundu ahalko dira bidaia-gastuak, ostatuari eta garraioari dagozkienak.

– Proiektua abiaraztea. Diruz lagundu ahalko dira produktuaren inguruan eskaintza antolatzeko aukera ematen duten ekimenak abian jartzearen ondoriozko gastuak, bai eskariaren jokamoldearen azterlanei buruzkoak (IBILTUR estatistika-operazioaren planteamendu metodologikoaren arabera), bai horiek eraginkor bilakatzeko laguntza ematen duten zerbitzuei eta zabalkunderako behar diren euskarriei dagozkienak.

– Kanpoko sentsibilizaziorako ekintzak, foroak, jardunaldiak eta EAEko Marketin Plana 2017-2020an lerrokatutako produktuen aurkezpenak. Diruz lagundu ahal izango dira ekintza horiek abiaraztearen ondoriozko gastuak, euskarrien garapenari, espazioen alokairuari, materialaren garapenari, zabalkundeari, hizlariei eta abarri dagokienez.

– IKTekin lotutako soluzio teknologikoak ezartzea, produktua osatzen duten baliabideen bisita turistikoa eta interpretazioa errazteko: seinaleztapena eta informazio-panelak teknologia berrietan oinarrituta, audio-giden edukien garapena, errealitate areagotua, etab.

3) Sustapena:

– Interes handiko ekitaldiak sortzea edo martxan jartzea, deialdirako eta/edo oihartzun mediatikorako duten ahalmenagatik, bai eta produktuarekin zerikusia duten nazioarteko ekitaldiak ere.

– Web-euskarriak eguneratzea edo hobetzea (webguneak, blogak, newsletterrak, etab.).

– Sare sozialen kudeaketaren eta mantentze-lanen gastuak.

– Ikus-entzunezko edukiak garatzea: irudi-bankuak, ikus-entzunezko erreportajeak eta abar egitea, betiere erakunde eskatzailearen esku geratzen badira eta material hori eta doan erabiltzeko eskubidea Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzaren esku geratzen badira, erakunde onuradunari aplika dakizkiokeen baldintza beretan.

– Proiektuarekin zerikusia duten sustapenerako materialak editatzea eta sortzea eta emango diren euskarrietara –fisikoa edo digitala– egokitzea. Gainera, zehazki, Euskadi Gastronomika eta Familia-turismoa produktu-klubei lotutako helmugetarako, produktu-klubari ikusgaitasuna emango dieten euskarri fisikoak lagunduko dira diruz, eta, naturako produktuari dagokionez, xendazaletasunari, zikloturismoari eta ekoturismoari buruz egindako euskarrien inprimatzeen ondoriozko gastuak lagundu ahal izango dira diruz.

– Produktuan espezializatuta dauden turismoko azoka profesionaletara eta amaierako publikoari zuzendutako produktuan espezializatutako azoka turistikoetara joatea: diruz lagunduko dira espazioa eta standa alokatzearen eta pertsona baten ostatuaren, bidaiaren eta mantenuaren ondoriozko gastuak, baita jendearentzako arreta-zerbitzua emateko pertsona baten kontratazioa. Ez dira diruz lagunduko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Basquetourren bidez bisitatzen dituen azokak.

– Publizitatea sartzea (online eta offline), «press-trip» delakoak eta kaleko ekintzak.

4) Merkaturatzea:

– Eskaintza dinamizatzea, eragile espezializatuen bidez, eta/edo eskaintza kokatzeko ekintza interesgarriak egitea: besteak beste, fam tripak, alderantzizko jardunaldiak, zuzeneko jardunaldiak, workshopak, etab.

– Lineako merkataritza-estrategiak.

5.– Turismo-produktuak sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzen garapena diruz lagunduko da honako eremu hauetan:

– Euskal Autonomia Erkidegoan.

– Estatuan eta nazioartean, batez ere Euskal Turismoaren 2017-2020 Marketin Planean lehentasunezkotzat jotzen diren merkatuetan (Estatuan: Madril, Katalunia, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa, eta nazioartean: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, EEBB, Herrialde Nordikoak eta Herbehereak), hiru hiriburuetako eta Arabako Errioxako turismoaren erakunde sustatzaileek egiten dituzten jardueretarako. Era berean, gainerako entitate onuradunek esparru horietan egiten dituzten sustapen- eta merkaturatze-ekintzak egitea onartuko da, baldin eta halakoak estatuko eta/edo nazioarteko sareen barruan egoteagatik egiten badira eta eskaeran hala justifikatzen bada.

6.– Produktuak sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan aplikatu beharko den logotipoa duten markak elkarrekin agertzeko politika honako hau izango da:

– Erakunde onuradunen logotipoa duten markak «Euskadi Basque Country» markarekin eta, hala badagokio, produktu-klubaren markarekin batera agertuko dira.

– «Euskadi Basque Country» logotipoa duen markak eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren logoak hierarkikoki garrantzi bera edo handiagoa izango dute erakunde onuradunaren logotipoaren markak baino.

– Aurrekoa gorabehera, bidaia-agentziekin edo preskriptore turistikoekin sustapen-ekintzak egiten badira, erakunde onuradunaren logotipoa duen marka erabili gabe, ez da beharrezkoa izango Euskadi Basque Country logotipoa duen marka erabiltzea, ez eta produktu-klubarena ere.

7.– Gastu hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

– Inbertsio-gastuek.

– Informatikako ekipamendua erosteak.

– Funtzionamendurako ohiko gastu orokorrek (hornidurak, ura, argia, telefonoak, aseguruak, bulegoko materiala, alokairua eta antzekoak); Internetera sartzeko kuotek; beste elkarte batzuei ordaindutako kuotek, eta egon ohi diren antzeko beste gastu batzuek. Diruz laguntzen den egitatearekin zuzeneko harremana dagoela egiaztatzen duten frogak aurkezten ez badira.

– Erakunde eskatzaileko langile finkoen edo egonkorren gastuek.

– Luntxek, bazkariek eta antzekoek, gastu horiek ekintza garatzeko zuzeneko harremana daukatenean eta beharrezkoak direnean izan ezik, baina, betiere, eskabidean arrazoitu beharko dira.

– Gonbidapenen, merchandisingaren eta oparien ondoriozko gastuek.

– Webgunearen erregistrorako, mantentzerako eta ostatatatzerako (hosting) gastuek.

8.– Laguntzen zenbatekoa:

8.1.– Eranskin honetan aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta ehunekoak honako hauek dira:

a) Langileak kontratatzea (laguntza teknikoaren bitartez edo obra- eta zerbitzu-kontratuaren edo antzekoaren bidez) proiektuen kudeaketa-, jarraipen- eta dinamizazio-lanetarako: onartutako gastuaren % 60; gehieneko dirulaguntza: entitate bakoitzeko 25.000 euro.

b) Diruz lagun daitezkeen gainerako jarduketak: onartutako gastuaren % 50.

8.2.– Aurreko hori gorabehera, entitate onuradun batek eranskin honetan ezarritako kontzeptu guztiengatik jaso ahal duen gehieneko dirulaguntza, kontuan hartuta entitatearen jarduketa-eremua, honako hau da:

a) Udalerrien esparruko toki-entitateak: 15.000 euro, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak bazter utzita; azken horien kasuan, gehieneko dirulaguntzaren zenbatekoa 66.500 euro izango da.

b) Eskualdearen edo eskualdez gorako eremuan jarduten duten entitateak: 66.500 euro.

II. ERANSKINA

HELMUGEN LEHIAKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA HOBETZEKO PROIEKTUAK

1.– Erakunde onuradunei lagunduko zaie helmugen enpresa, baliabide eta zerbitzu turistikoen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzeko Basquetourrek sustatutako eta kudeatutako honako programa hauek antolatzen eta ezartzen:

1.1.– Helmugen Kalitateko Jardunbide Egokien Programa. Turismo-helmugen kudeaketa integralaren eredua ezartzeko programa, helmugan erakunde-egitura egonkorra sortuz, jardunbide egokien eskuliburuak ezarriz eta aginte-koadroa kudeatuz. Hauek dira erakundearen helburu nagusiak:

– Turismoaren sektorea profesionalizatzea, negozioaren kudeaketa hobetuz, bai eta ematen den zerbitzua ere (bezeroaren gogobetetasuna).

– Helmugako kontzientzia garatzea eta, horretarako, erakunde-egiturak sortzea bertan.

1.2.– Smart Business konpromiso-programa (IKTen erabilerarako Jardunbide Egokien programa) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera hobetzeko programa euskal turismo-sektoreko enpresetan, sentsibilizazioaren eta laguntza integratuaren bidez. Hauek dira erakundearen helburu nagusiak:

– Euskadiko turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea, IKTen erabileraren bidez.

– Teknologia sartzeko oztopoak kentzea.

– Sektoreko enpresetan teknologia-jardunbide egokiak sustatzea.

– Enpresei hobekuntza-prozesuetan laguntzea.

– Turismo-helmugaren gaineko kontzientzia sortzea, etengabeko hobekuntzarako.

1.3.– Europako Ekoetiketaren ziurtapen-programa. Europako eredua ezartzeko programa (bertan, irizpide ekologikoak ezartzen dira), euskal turismoaren sektoreko enpresetan ingurumena babesten duten produktu edo zerbitzuak sustatzeko. Produktuak edo zerbitzuak bizitza-zikloan ingurumenean duen eraginari buruzko benetako informazioa ematen du, eta, beraz, kontsumitzaileek ingurumenean eragin txikiagoa duten produktuak eta zerbitzuak aukera ditzakete. Helburu nagusiak honako hauek dira. Hauek dira erakundearen helburu nagusiak:

– Ingurunearekin errespetuzkoa den ostatu-hartze osasungarriko eskaintzan laguntzea.

– Ekoeraginkortasuna: kostuak murriztea.

– Zerbitzuaren kalitatea eta haren ingurumen-kudeaketa egokia nabarmentzea.

– Ostatuaren irudia eta ospe ona hobetzea.

– Ostatuaren gizarte-erantzukizuna hobetzea.

– Merkatua bereiztea.

1.4.– Irisgarritasunarekiko konpromiso-programa. Turismo-irisgarritasuneko euskal eredua ezartzea helburu duen programa, euskal turismo-sektoreko enpresetan irisgarritasun-irizpideak betetzen dituzten produktuak edo zerbitzuak sustatzeko. Informazio egiazkoa ematen du produktuaren edo zerbitzuaren irisgarritasunaren aldetik egongo den eraginari buruz; beraz, aukera

ematen du kontsumitzaileek pertsona guztiei erosotasun handiagoa ematen dieten produktuak eta zerbitzuak aukeratu ahal izan ditzaten. Honako hauek dira bere helburu nagusiak:

– Pertsona guztiei zerbitzu estandarretarako sarbidea bermatzea, euren beharrizana edozein dela ere.

– Ahalmen urritasun iraunkor zein aldi baterakoen aukera ahalik eta zabalena –fisikoa, adimenekoa, zentzumenetakoa (ikusmena, entzumena), organikoa– barnean hartzea.

– Gizarte osoari on egitea. Zerbitzu, produktu eta azpiegituren irisgarritasuna hobetzeak kalitatea ekartzen die adineko pertsonei, ezintasun iraunkorren bat daukaten pertsonei eta bizitzan euren ahalmenak beste arrazoiren batengatik murriztuta daukaten pertsonei (haur-kotxeak eramaten dituzten pertsonak, haurdun dauden emakumeak, unean uneko lesioren bat daukaten pertsonak eta abar), eta gizarte osoari ere bai, zerbitzuen segurtasuna, kalitatea eta erosotasuna handitzen dituelako, estetika hautsi behar izan gabe. Irisgarritasuna kontuan hartzen duten espazioek erosotasun handiagoa ematen diete pertsona guztiei.

– Normalizatzea. Programaren oinarria dibertsitate funtzionala daukaten pertsonak ohiko jardueran integratzea da, haientzat soilik prestatutako zerbitzuak sor ez daitezen.

– Autonomia. Programaren abiaburua honako hau da: pertsonek gozatu ahal izatea, espazioen eta zerbitzuen segurtasun, kalitate eta erosotasuna bermatuta daukatela, laguntzarik behar izan gabe.

1.5.– Kode etikoarekiko konpromiso-programa. Euskal turismo-sektorean kode etikoaren inguruko sentsibilizazio- eta hedapen-lana egiteko programa. Bere printzipioek (10) barnean hartzen dituzte, aise, bidaien eta turismoaren ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-osagaiak. Honako hauek dira bere helburu nagusiak:

– Turismoak ingurumenean eta kultura-ondarean dauzkan eragin txarrak arintzea.

– Turismo-helmugetako bizilagunentzat onurak ahalik eta gehien handitzea.

– Turismo-sektorearen etorkizuna babestea.

– Turismoak ekonomiaren oparotasunean, bakean eta munduko nazio guztien arteko elkar ulertzean egiten duen ekarpena handitzea.

– Turismo-ordena ekitatiboa, arduratsua eta jasangarria sustatzea, gizarteko sektore guztiek elkarri on egin diezaieten, nazioarteko ekonomia ireki eta liberalizatutako ingurune batean.

Aipatutako programek honako prozesu hauek dauzkate: plangintza eta sentsibilizazioa, autodiagnostikoa eta diagnostikoa, prestakuntza, bana-banako asistentzia teknikoa, ebaluazioa eta, azkenik, berme- eta sari-prozesua.

2.– Basquetourreko urteko programazioko laguntzaren erakunde eskatzaileak onarpena eman beharko du programa horiek ezartzeko, eskabidea egin aurretik.

3.– Goi-mailako prestakuntza duten langileak aldi baterako kontratatzeko gastua diruz lagundu ahalko da –laguntza teknikoaren edo obra edo zerbitzuko kontratuaren edo antzeko bestelako baten bidez–, baldin eta berariazko helburutzat badu aipatutako programen prestakuntza-, ezarpen- eta ebaluazio-prozesuetan enpresa eta erakunde parte-hartzaileei laguntzea.

Ez da onartuko erakunde eskatzailearen langile finkoen edo egonkorren gasturik.

4.– Laguntza onartutako gastuaren % 60koa izango da, eta, gehienez, 25.000 eurokoa erakunde bakoitzeko. Onartutako zenbatekoa honako alderdi hauek kontuan hartuta kalkulatuko da:

a) Prametan izena eman duen enpresa-kopurua.

b) Enpresa eta programa bakoitzeko diruz lagun daitezkeen orduak, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

– Helmugen Kalitateko Jardunbide Egokien programak honela lagunduko dira diruz: gehienez 20 ordu bizkortze-zikloak eta bereizketarako bizkortze-zikloak egiten dituen enpresa parte-hartzaileko eta 8 ordu enpresako segimendu eta berrikuntza zikloetarako.

– Smart Business konpromiso-programak (IKTen erabilerarako Jardunbide Egokien programak) honela lagunduko dira diruz: gehienez 20 ordu enpresako ezarpen-fasean, eta 8 ordu enpresako programak mantentzeko kasuetarako.

– Europako Ekoetiketen Ziurtapen Programa honela lagunduko da diruz: gehienez 20 ordu enpresa parte-hartzaileko ezarpen-fasean.

— Irisgarritasunarekiko konpromiso-programa: gehienez 20 ordu diruz lagunduko dira ezarpen-fasean parte hartzen duen enpresa bakoitzeko, eta 8 ordu etengabeko hobekuntzako fasean, enpresa bakoitzeko.

– Kode etikoarekiko konpromiso-programa: gehienez 5 ordu diruz lagunduko dira sentsibilizazio-fasean parte hartzen duen enpresa bakoitzeko.

c) Orduko diruz lagun daitekeen gehieneko kostua 35 euro da. Horrenbestez, onartutako zenbatekoa eskuratzeko aplikatu beharreko formula honako hau da: (enpresa parte-hartzaileen kop.) x (diruz lagundutako ordu-kop.) x (kostua orduko).

2019ko Esperientziak
Gasteizko katedralaren sekretuak
Flyscharen ibilbidea Euskal kostaldeko Geoparkean.
Lekeitio arrantzalea
El Fabulista upategia. Tradizioa Arabako Errioxan
Bisita berezia Ostatu upategietara
Idiazabal lurraldea. Bisita Goierriko gaztandegi batera
Idiazabal gazta Arantzazuko Gomiztegi baserrian
Santurtzitik Bermeora: egun osoko ibilbidea
Ibilbidea itsasontziz Gaztelugatxeko San Juanen
Bakioko txakolina. Bisita eta dastatzea upategian
Getariako txakolina. Upategia bisitatzea eta dastatzea Zarautzen.
Urdaibai. Txakolina, natura eta paisaia, Berroja upategian
Txakolin zaporearekin. Bisitatu Beldui baserria upategia
Artzain egun batez Urkiolan
Gatz pitin bat gatz haranean
Ukitu zerua Vitoria-Gasteizen. Paseoa globoz
Hegaldia globoz Nerbioiko sorlekutik
Sagardoa eta itsasoa, eta Donostia inguruko sagardotegi batean bazkaria
Urdaibaiko itsasadarrean nabigatuz
Euskal pilota eta itsasoa
5 zentzumen gozamenerako esperientziak Arabako Errioxan
Euskal sagardoaren kultura Sagardoetxea Museoan, eta bazkaria
Premium bisita Petritegi sagardotegira
Gasteiz misteriotsua, haurrentzat
Herri kirolak zuzenean, apustu egin nahi?
Gasteiz nobela hiria
Itsas tradizioa eta itsasoko jaki gozoak Pasaian
Euskal kostaldea 4x4 ibilgailuan
Mutriku, balea herria
Euskal sukaldaritza tradizionalari buruzko tailerra Pasai Donibanen
Bilboko historia laburra
Ezagutu piraguaz Arabako Errioxa eta bertako ardoak
Bisitatu Ordiziako azoka eta egin tailer gastronomiko bat
Bisita Tolosako azokara eta dastatzea
Bisita Oñatiko Arrikrutz kobetara
Bisitatu Pozalaguako koba Karrantza Haranean
Espeleologoa egun batez Oñatiko Arrikrutz kobetan.
Ilunabarra belaontzian Getxon
Nabigatu belaontziz Txingudiko Badian
Belaz nabigatuz Abrako badian eta Punta Galean
Itsaspeko upeltegia: itsasoan ondutako ardoak dastatzeko plazer berdingabea
Coastering Euskal Kostaldea
Angula arrantzaleen ibilbidea.
Erdi-aroko Bastida
Espeleologo txikiak. Arrikrutzeko kobak, familian

2019ko Esperientziak
Dastatze-tailerra Urban-Beer-en.
Erdi Arorako bidaia, Atxorrotxeko gazteluan, garai hartako hamaiketako batekin
Arabako Errioxa Off-road
Idiazabalko gazta baino gehiago Tolosaldean
Piknika kayakean Urrunagako urtegian.
Bilbo osorik
Bilboko alde zaharra, hiribildu baten sorrera
Abentura parkea Otxandion.
Piknika gurpil gainean: Gorbeiaren sekretuak btt-n.
Bilboko zabalgunea, hiribilduaren aurrerapena
Guggenheim Bilbao: bisita gidatua
Txakolinaren eta Idiazabal gaztaren uztartzea Goierrin
Bitxigintza tailerra, euskal eskulangile batekin, Arabako lautadan
Golfa eta gastronomia mendi artean Zuian.
Ertzetik ertzera Zubi Esekitik e-bikean
Chillida eta Burdina: modernitatearen tradizioa
Chillida eta Burdina: modernitatearen tradizioa
XVI. mendeko errota batean ogia egitea
Artista egun batez Chillida Lantokin
Trekking Inaziotar Bidean eta esperientzia gastronomikoa
Inaziotar Bidea bizikletaz eta esperientzia gastronomikoa
Foot and Food. Mendi ibilaldiak eta Gastronomia. Igeldotik Oriora
Zentzumenen bidaia bat XVI. mendeko baserri batera, Igartubeiti baserrira
Lantegi gozoa Gorrotxategin, txokolatea eta teilak Tolosan
Itsasontziko patroia egun batez Bilbon, titulurik eta esperientziarik gabe
Bisita gastronomikoa Bilboko alde zaharrera
Itsas paisaiak, Bizkaiko kostan, Ebikerekin
Ibilaldia belaontzian, Getxon barna
Bizkaiko labarrak inguratuz, itsasotik
Asteburua belaontzi batean kostaldetik (basea, Getxon).
Dastatze gastronomikoa, belaontzian, Bilboko itsasadarrean zehar
Bilboko itsasadarretik igoera belaontzian
Euskal Kostaldea parapentean Sopelatik
Gatzetik kresalera, globoz eta piraguaz
Dastatu Euskadiko zaporeak Gorlizen
Fun&Golf Urgoiti jauregian
Ibilbidea zaldiz Butroeko gaztelutik
Kontrabandisten kala Gorliztik
Urban Beer bira Zamudion
Brunch & Beer. Azken joera Zamudioko artisau garagardotegi bat ezagutzeko
Ezagutu ezazu Plentzia
Ezagutu Butroeko gaztelua, piraguaz
Euskal baserria, gure kultura eta mitologia Mungian
Flysch Bizkaian
Mungian eta euskal baserrian zehar pasieran

2019ko Esperientziak
Erdi Aroko ibilbidea, Bizkaiko kostaldean
Oiartzungo Momotegi baserrira bisita eta dastatzea
Gernika, bonbardaketa
Mendi ibili egokituak Plentziako eta Barrikako kostaldetik
Omako basoa Joëlette gurpil aulkian
Gaztelugatxeko San Juan Joëlette gurpil aulkian
Bisita irisgarria, Bilbora eta Pagasarrira
Talo tailerra eta bisita gidatua Igartza Monumentu Multzoan (Beasain)
Bola jokoa Zerainen
Egin zure taloa eta gozatu Ordizian!
Gazta erdia 13.000 €-gatik? Idiazabal gazta, bere sekretuak eta dastatzea Goierrin
Ezagutu munduko ofizio zaharrenetako bi: artzain eta gatzagile
Ogia egiteko tailerra Goierrin
Dastatzaile izateko ikasten «urrezko sudur» batekin Goierrin
Burua eta gorputza. Estresik gabeko asteburua Amalurran.
Gau bateko ihesaldi termala, kulturala eta gastronomikoa Karrantzako bainuetxera.
Indianoen ametsa Enkarterrin.
Ibilbide enogastronomikoa Gasteizen
Gasteizko historia, haurrentzat
Arabako lautadako Erdi Aroko pintzelkadak ezagutuz bisita eta tailerra
Bisita eta tailerra haurrentzat: Bazen behin Gasteiz
Gernika, «Aire erasoentzako babeslekuen bidea»
Ibilbidea itsasontziz Urdaibain
Kondairazko Gasteiz. Gaueko bisita.
La Perla, Donostiako talasoterapia zentroa
Gasteizek duen onena
Enologoa egun batez Amador García Upategietan
Ezagutu Arabako Errioxa Ebrotik
Lau izendapen, lau gazta Izadi Upategietan
Arkitektura eta ardoa Arabako Errioxan; dastatzea Baigorri Upategian
Arkitektura eta ardoa Baigorri Upategietan: artearekin dastatzea
Arkitektura eta ardoa Arabako Errioxan: Baigorri menua
Arkitektura eta ardoa Arabako Errioxan: Baigorri Premium menua
Esperientzia mahastian jeep 4x4 ibilgailuan eta piknika Palacio Upategietan
Oiongo Valdemar Upategietara bisitak, familian
Barietateen artean Samaniegoko Amaren Upategietan
Guardia oso-osorik
Enologoa, Pagos de Leza upategietan
Mahatsa zapaltzea, Pagos de Leza upategietan
Bidaia magikoa Arabako Errioxako iraganera
Musika eta ardoa Villa Lucia finkan
Ardoaren eta patxaranaren sekretuak Arabako Errioxan
Jilaba Upategiak. Luxury ardoak eta arrosak
Kapritxo termala Areatzan
Mendi ibiliak, spa eta gastronomia, Gorbeiako Parke Naturalean

2019ko Esperientziak
Piknika gurpil gainean Orozko haranean
Sagar cycling, sagardoaren bidea bizikleta elektrikoan, Astigarragan.
Sagardoa eta itsasoa, Pasaiatik aterata eta hamaiketako bat eginda sagardotegian.
Gastronomia tailerra Donostiako Ni neu – Kursaal jatetxean
Esperientzia enogastronomikoa Azurmendi Jatetxean
Ipurua Tourra, Eibarren
Guggenheim Bilbao Plus visita
Bilbok duen onena
Donostiak duen onena.
BBQ-Donut: Gastronomiaren eta nabigazioaren arteko bat egitea
Idiazabal lurraldea: bisita Gorbeiako gaztandegietara
Nabigatu Bilboko erdigunetik
Itsasorantz nabigatuz Bilboko itsasadarretik Santurtzira

IV. ERANSKINA

Lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak (PTT 2019) (Erref:1020606)

ESKAERA

□ Titularra:

□ Ordezkaria:

Organo instruktoreri zuzenduta: TURISMO ETA OSTALARITZA ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK

Nortasun-datuak

Titularra

Identifikazio-dokumentua:

Zenbakia:

Erakundearen izena:

Ordezkaria

Identifikazio-dokumentua:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea

JAKINARAZPEN-DATUAK

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza

○ Euskara ○ Gaztelania

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: *Nire karpeta* guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Bertan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

10 egun naturaletan jakinarazpen elektronikora iritsi ez bazara, ulertuko dugu ez duzula onartu. Ondorioz, izapidea egintzat joko da, eta Administrazioak prozedura izapidetzen jarraituko du.

Abisuak jasotzeko datuak:

Posta elektronikoa:

Sakelako telefonoa:

○ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekiko harremanetan erabiltzea nahi dut oro har.

Aukera hau hautatzen baduzu, etorkizunean Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekin izango dituzun harremanetan, ez dizkizugu berriro komunikazio eta abisuetarako datuak eskatuko.

○ Nire komunikazio eta abisuetarako datuak espediente hau kudeatzeko bakarrik erabiltzea nahi dut.

Aukera hau hautatzen baduzu, etorkizunean Eusko Jaurlaritzako sail eta erakundeekin izango dituzun harremanetan zure komunikazio eta abisuetarako datuak berriro eskatuko dizkizugu.

OINARRIZKO DATUAK

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden jasota

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historiko/erkidego/probintziatan dauden jasota: Araba / Bizkaia / Gipuzkoa

Datuen babesari buruzko oinarrizkoa informazioa

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabili egingo dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Turismo-arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Arduraduna: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila. Turismo eta Ostalaritzako Zuzendaritza.

Helburua: Turismo-arloko dirulaguntza eta laguntza publikoen kudeaketa.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa bada, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea).

Hartzaileak: Ez dira datuak lagako, lege-betebeharrik izan ezean.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza: www.euskadi.eus/rgpd/1020606.

Honen arabera beteta:

Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf). Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/ 2018 Lege Organikoa. (https://www.boe.es/boe/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673.pdf

DATU OSAGARRIAK

Legezko ordezkaria

Identifikazio-agiria:
Zenbakia:
Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea

Nahi adina errepika daiteke.

Erakunde eskatzailearen egoitza soziala:

Posta-kodea: Probintzia:
Udalerria: Herria:
Helbidea: Zenbakia: Eskailera:
Solairua: Letra:

Harremanetarako pertsona:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Telefonoa:
Helbide elektronikoa:

Nahi adina errepika daiteke.

Plantillako langileen kopurua

Azkeneko kontabilitate-ekitaldia amaitzean plantillako langileen kopurua orotara hau da:

Gizonak: Emakumeak: Langileak, guztira:

Entitatearen lurralde-eremua:

Eremua: Eskualdea/eskualdez gaindikoa / Hiriburua / Tokikoa

Diruz lagundu daitezkeen jardunak:

□ **Lurralde-proiektu turistikoak**: Helmugen erakargarritasuna eta Euskadiko turismo-esperientzia hobetzen duten turismoko lurralde-proiektuak

□ **Lehiakortasuna hobetu:** Helmugen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak

LURRALDE-PROIEKTU TURISTIKOAK

Helmugen erakargarritasuna eta Euskadiko turismo-esperientzia hobetzen duten turismoko lurralde-proiektuak

□ Langile kualifikatuen aldi baterako kontratazioa (produktu GUZTIetako gastu komunak)

□ Sareetako kidea izatea

□ Turismo-produktuak sortzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko gastuak

Langile kualifikatuen aldi baterako kontratazioa

Dirulaguntza eskatzen den langile kontratatuaren datuak:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Kontratuaren iraupena:
Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa
Kontratatutako enpresaren identifikazioa:
Zenbatekoa (eurotan):

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin*

Nahi adina errepika daiteke

Oharra: *ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada.*

Sareetako kidea izatea

Izena:

Kontzeptua:	Zenbatekoa (euro) :

Nahi adina errepika daiteke

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

***Oharra**: Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada.*

Turismo-produktuak sortzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko gastuak

Garatutako proiektuak oinarri diren gida planaren edo turismo-produktuaren identifikazioa:

Gida plana/ turismo-produktua:
Jardueraren izena:
Kontzeptua:
Zenbatekoa (euro) :

Nahi adina errepika daiteke
.

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin*.

***Oharra**: Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada.*

LEHIAKORTASUNA HOBETZEA

Basquetourrek sustatu eta kudeatutako helmugetan lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzen duten proiektuak

□ 1.1. Helmugen Kalitateko Jardunbide Egokien Programa.

□ 1.2. Smart Business konpromiso-programa (IKT erabilerrako Jardunbide Egokien programa).

□ 1.3. Europako Ekoetiketaren ziurtapen-programa.

□ 1.4. Irisgarritasunarekiko konpromiso-programa.

□ 1.5. Kode etikoarekiko konpromiso-programa.

Diruz laguntzeko eskatutako jardunbide egokien programetan parte hartuko duten enpresen datuak, genero-gaietan:

1, 2 edo 5 programan parte hartzen duten enpresa ezberdinen kopurua:
Enpresa horietan lan egiten duten pertsonak, orotara:

Gizonak: Emakumeak: Plantillako langile-kopurua guztira:

1.1. Helmugen Kalitateko Jardunbide Egokien Programa.

Kontratatutako pertsonala

Kontratatutako pertsonaren datuak:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa
Kontratatutako enpresaren identifikazioa:

Laguntzari buruzko datuak:

-Bizkorte-zikloak eta bereizketarako bizkorte-zizloak:
Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

- Segimendu eta berrikuntza zizloak:
Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak guztira:

Diruz lagundu daitezkeen orduak guztira:
Kontratatutako orduaren kostua:
Diruz lagundu daitekeen orduaren kostua: *(Diruz lagundu daitekeen ordua 35 euro ordainduko da, gehienez)*

(Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada)

Diruz lagundu daitekeen oinarria :

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

Nahi adina errepika daiteke

1.2. Smart Business konpromiso-programa (IKTak erabiltzeko jardunbide egokien programa.

Kontratatutako pertsonala

Kontratatutako pertsonaren datuak:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea

Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa

Kontratatutako enpresaren identifikazioa:

Laguntzari buruzko datuak:

- Ezarpen-fasea:
Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

- Mantentze-fasea:
Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak guztira:

Diruz lagundu daitezkeen orduak guztira:
Kontratatutako orduaren kostua:
Diruz lagundu daitekeen orduaren kostua: *(Diruz lagundu daitekeen ordua 35 euro ordainduko da, gehienez)*

(Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada)

Diruz lagundu daitekeen oinarria :

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

Nahi adina errepika daiteke

1.3. Europako Ekoetiketaren ziurtapen-programa.

Kontratatutako pertsonala

Kontratatutako pertsonaren datuak:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa

Kontratatutako enpresaren identifikazioa:

Laguntzari buruzko datuak:

- Ezarpen-fasea:

Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

Kontratatutako orduaren kostua:
Diruz lagungarria den orduaren kostua: *(Diruz lagundu daitekeen ordua 35 euro ordainduko da, gehienez ere)*

(Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada)

Diruz lagundu daitekeenaren oinarria:

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

Nahi adina errepika daiteke

1.4. Irisgarritasunarekiko konpromiso-programa.

Kontratatutako pertsonala

Kontratatutako pertsonaren datuak:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa

Kontratatutako enpresaren identifikazioa:

Laguntzari buruzko datuak:

- Ezarpen-fasea:

Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

- Etengabeko hobekuntzako fasea:
Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

Kontratatutako orduaren kostua:

Diruz lagungarria den orduaren kostua: *(Diruz lagundu daitekeen ordua 35 euro ordainduko da, gehienez ere)*

(Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada)

Diruz lagundu daitekeenaren oinarria:

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

Nahi adina errepika daiteke

1.5. Kode etikoarekiko konpromiso-programa.

Kontratatutako langileak

Kontratatutako langilearen datuak:

Izena:
Lehen abizena:
Bigarren abizena:
Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea
Kontratu-mota: ○ Kontratazio zuzena ○ Laguntza teknikoa

Kontratatutako enpresaren identifikazioa:

<u>Laguntzari buruzko datuak:</u>

Sentsibilizazio-fasea:

Parte hartuko duten enpresen eta baliabiden kopurua:
Diruz lagundu daitezkeen orduak, guztira:

Kontratatutako orduaren kostua :
Diruz lagungarria den orduaren kostua : *(Diruz lagundu daitekeen ordua 35 euro ordainduko da, gehienez ere)*

(Ez sartu BEZik, ondoren berreskuratu edo konpentsatu behar bada)

Diruz lagundu daitekeenaren oinarria :

Gastua finantzatzeko **emandako** laguntzak*:_____

**Proiektuaren gastu desberdinen finantzaketarako emandako laguntzen zenbatekoak bat etorri behar du erantzukizunpeko adierazpenaren "Emandako laguntzak, guztira" atalean adierazitako zenbatekoarekin.*

Nahi adina errepika daiteke

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Dirulaguntza jaso duen pertsona edo erakunde onuradunaren izaera:

□ Pertsona edo erakundea ez dago Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren egoeretariko batean ere (egoera horiek eragotzi egiten dute pertsona edo erakunde onuradunak izatea).

Zehapenei buruz:

□ Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik, eta ez dauka horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

□ Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozedura batean ere.

□ Erakundea honako itzultze- edo zehapen-prozedura hauetan dago, eta prozeduraa horien ebazpenaren berri emango dio Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzari.

Prozedurak:

Hasteko data	Sail izapidetzailea	Espediente-zenbakia

Nahi adina errepika daiteke

Beste laguntzei dagokienez:

□ Proiektu honetarako, ez du dirulaguntzarik eskatu gaur egunera arte erakunde publiko edo pribatuetan, ezta jaso ere.

□ Proiektu honetarako, laguntza-eskaera honetaz gain, dirulaguntza eskatu edo jaso egin du gaur egunera arte, ondoren zerrendatzen diren erakunde publiko edo pribatuetan:

Beste laguntza batzuk:

Eskaera-urtea	**Erakundea**	**Programa**	**Jarduera**	**Eskatutako laguntzaren zenbatekoa**	**Emandako laguntzaren zenbatekoa**

Nahi adina errepika daiteke

Emandako laguntzak, guztira:_____
"Emandako laguntzaren zenbatekoa" zutabean adierazitako zenbatekoen batura

Emandako laguntzak*:_____
** Jarduera bakoitza finantzatzeko adierazitako gastuen zenbatekoen batura*

"Emandako laguntza, guztira" ataleko zenbatekoak bat etorri behar du "Emandako laguntzak" ataleko zenbatekoarekin.

□ Agindu honen bidez emandako zenbatekoak, beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako beste dirulaguntza batzuekin batera, dirulaguntza emateko xede den jarduketaren kostua baino altuagoa bada, eskatzaileak konpromisoa adierazten du egoera horren berri emateko.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez:

□ Ez dago zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/ 2005 Legearen 24.2 artikuluaren arabera.

□ Betetzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.

□ Konpromisoa hartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/ 2005 Legearen 2.3 artikuluak Administrazioaren laguntzak kontratatzen, hitzartzen eta jasotzen dituzten erakundeei ezartzen dizkien baldintzak betetzeko. Hauek dira betebehar horiek: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioak betez jardutea; estatistika eta azterketak egokitzea; edozein motatako hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea euskarri guztietan, eta zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua edukitzea.

Eskaera datuei dagokienez:

□ Egindako aktan azaltzen denez, jarduera edo jarduerak egitea baimendu da laguntza-programa honi dagokion deialdian ezarritakoaren arabera, eta diruz lagundu ezin daitekeen aurrekontua finantzatzeko konpromisoa onartzen da.

Aktaren data:

Organo eskuduna:
Eskumena ematen dion araua edo dokumentua:
Data:

□ Betetzen ditu indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak.

□ Hemen jasotako datu guztiak egiazkoak dira eta osorik daude, baita aurkeztutako dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dut dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpenean jasotzen den datu edo informazioren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo falta bada, edo Administrazio eskudunari deklaratzen dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bazaio, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).